

Azterketak




Errentaren banaketa
eta politika publikoak

ELAren Azterketa Bulegoa



Non zer

0. SARRERA	3
1. ERRENTAREN BANAKETA	4
A) Aberastasuna hazi egin da, baina lan errentek aberastasunean gero eta pisu txikiagoa dute	4
B) Mozkinen pisua hazi, lan-kostuak amildu	6
C) Ondorioak	10
2. EUSKO JAURLARITZAREN, FORU ALDUNDIEN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN SUPERABITA	11
A) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien superabita	11
B) Nafarroako gobernuaren superabita	14
C) Ondorioak	15
3. NAFARROAKO GOBERNUAK GIZARTE-ZERBITZUEI BURUZ AURKEZTUTAKO LEGE-PROIEKTUA	16
A) Menpekotasunaren egoera Nafarroan	16
B) Gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektua	17
C) Ondorioak	20
4. ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK	22
A) Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana	23
B) Nafarroako gobernuaren 2005-2008 etxebizitza plana	25
5. MERKATALGUNE HANDIEI BURUZKO EUSKO JAURLARITZAREN DEKRETUA	29



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Estudios-Azterketak 9
Bilbo, 2006ko azaroa

0. SARRERA

Politika publikoak klase-borrokaren funtsezko atal dira. Gure instituzioetan, egunero, euskal biztanleen bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten erabakiak hartzen dira, oharkabe pasatu edo guregan eraginik ez dutela diruditen erabakiak badira ere.

Enpresetan KPIa gehi bi puntu baino gehiago lortzeko borrokatzea ez da oso baliagarria, etxebizitzaren prezioa, adibidez, %17 garestitzen bada, egoitza bateko hileko kostua 1.800 eurotik gorakoa bada, edo gure seme-alabak zaintzeko, zerbitzu publikorik ez dagoelako, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu behar badugu.

Dokumentu honetan, azken hilabeteotan gertatu diren eta gure bizi-baldintzekin eta gure instituzioen jardunarekin zerikusia duten alderdi batzuk aukeratu nahi izan ditugu.

Hasteko, errentaren banaketak izan duen bilakaera aztertuko dugu, benetako galtzailea langileria garelako frogatzeko.

Jarraian, gure gobernariak aurrekontuetako superabitaren alde egiten duten hautu politikoari erreparatuko diogu. Izan ere, superabita doktrina nagusi bihurtu da, euskal biztanleen premiak estaltzeko gizarte-politikak alde batera utzita.

Azkenean, gure instituzioek gauzatu dituzten politika publiko zehatz batzuei buruz mintzatuko gara: Nafarroako Gobernuaren gizarte-zerbitzuei buruzko legea, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Planak, eta Eusko Jaurlaritzak azalera handiei buruz argitaratutako dekretua. Gainera ikusita, elkarren arteko loturarik ez duten gaiak direla pentsa daiteke, baina sakon aztertuta, honako ondorioztapen honetara eramango gaituzte: kapitalaren onura lortzeko hautu politikoa egiten dute, pertsonen interesen kaltetan.

Mikel Noval, Julene Gabiola

1. ERRENTAREN BANAKETA

A) Aberastasuna hazi egin da, baina lan errentek aberastasunean gero eta pisu txikiagoa dute

Eustatek 2006ko bigarren hiruhilekoan izan den hazkunde ekonomikoaren datuak argitaratu ditu, baita aberastasunaren banaketa 2005ean zer nolakoa izan zen ere.

ELAk ohartarazi egin nahi du lan-errentek aberastasun orokorrean pisu gero eta txikiagoa dutela. Beraz, ekonomiaren hazkuntzearen etekinen banaketa ez da bidezkoa, ez solidarioa, soilik enpresa- eta kapital-errenten onerako ari baita gertatzen.


Horrela:

- 2005ean lan-errentak BPGaren %48,6 izan ziren, aurreko urtean baina bi hamarren gutxiago, alegia.
- Beraz, hiru urtean jarraian galdu dute lan-errentek aberastasun kopuru osoan pisua (2002ko %49,2tik 2005eko %48,6era).

Egungo ekonomiaren hazkunde aldia 1993an hasi zenetik lan-errentek BPGan duten zatia zeharo eta etengabe gutxitu da:

- 1993an BPGaren %54,7 ziren; 2005ean, aldiz, %48,6ra jaitsi da kopuru hori.
- Lan-errenten pisua hamabi urteotako tarte honetan soilik hiru urtetan hazi da (1998, 2001 eta 2002an), gainontzeko bederatzietan gutxitu egin da.

Lan-errentak / BPG (%). EAE. 1993-2005




Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

EAEko ekonomia asko hazi da azken urteotan. Alabaina, langile-klasearen ikuspuntutik garrantzia du aberastasuna nola banatzen den, eta hau gure agintariei ez zaie axola (izan ere, errealitatearen irudi propagandistikoa, osatugabea eta interesatua aurkezten dute).

Halere, egoera ez da administrazio eta gobernuek sinetsarazi nahi diguten modukoa. EAEn herritar guztiak ez daude berdin. 1993tik 2005era EAEko BPG (sortutako aberastasuna) %146 gehitu da, baina "Soldatapekoen ordaina" (hots, langileek jasotzen duten aberastasunaren zatia) dezentez gutxiago hazi da: %118,7. Bistan denez, lan-errentak BPG baino 27,3 puntu gutxiago hazi dira, urtean 2,27 puntu, batez beste. Bere aldetik, enpresen soberakin gordina (enpresa eta kapital errentak) gehiago hazi da PBGa baino, epealdi honetan aipatu soberakina %166,8 hazi baita (lan errentak baino 48,1 puntu gehiago).

**Lan errenta, enpresen soberakin eta BPG (%Aldaketa)
EAE 1993-2005**



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

Ekonomi-hazkunde itzela izan den tarte honetan lan-errenten pisua 6,1 puntu jaitsi da, eta galera hori honela azal daiteke:

- 2005. urtean lan-errentek 1993ko adinako pisua izan balute, iaz benetan lortutakoa baino 3.510 milioi euro gehiago iritsiko zituzten.

- Soldatapeko langile bakoitzak batez beste 4.400 euro galtzen ditu azken urteotan aberastasunaren banaketak izan duen bilakaera medio.

Lan-errenten galera EAEn. 1993-2005

Lan-errentak guztira	3.510 milioi euro
Soldatapeko bakoitzeko	4.400 euro

Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

Lan-errenten pisuak BPGan jaitsiera jasan du, enplegua sortu den arren. Halere, soldata igoerak ez dira handiak izan, eta enpleguaren prekaritatea ugaltu egin da, molde desberdinetan (sortutako hainbat lanpostu oso badaezpadakoak dira; aldi baterako kontratu tasa handiagoa da, baita azpikontratena, edo lanaldi partzialkoa ere...). Honi guztiari esker, posible da enplegu kopurua handitzearekin batera lan-errentek aberastasunean duten pisua galdu izana.


B) Mozkinen pisua hazi, lan-kostuak amildu

Eustatek 2006ko uztailean argitaratu ditu EAeko industria sektoreko enpresen 2004ko Kontuak (azken informazioa urte horretakoa da). Hona hemen azterlan horren ondorioz aipagarrienak:

2004ko ekitaldia

1. 2004an, EAeko industria sektoreko enpresen mozkinak %29,7 hazi ziren; enpresa berorien guztizko langile-gastuak, berriz, %6,5 gehitu ziren.


**Irabazien eta langile-gastuen gehikuntza (% aldaketa)
2004. Industria. EAE**



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

2. Euskal industriaren irabazi gordinek salmenten balio osoan duten pisua 2003ko %6,6tik %7,8ra igo zen 2004an.

**Irabazien eta langile-gastuen pisua
(Salmenta balioaren %). 2004. Industria. EAE 2003-2004**




Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

3. Euskal industriako soldata-kostuei salmenten balio osoan dagokien pisua 2003an %17,8koa izatetik %17,2ra igaro zen 2004an.

1994 eta 2004 bitarteko aldia

4. EAEko industriaren irabaziek %201,1ko hazkundea izan dute, langile-gastuen gehikuntzaren hirukoitza ia, gastuok %73,3 gehitu dira eta.


**Langile gastuen eta irabazien bilakaera (% Aldaketa)
EAEko Industria. 1994-2004**



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

5. Soldata-kostuek salmenten balioan duten pisua %21,9koa zen 1994an, eta %17,2koa 2004an. Bestalde, enpresa-irabazien pisua 1994an salmenten balioaren %5,5 izatetik %7,8ra hazi zen 2004an.


**Soldata-gastu eta irabazien pisua (Salmenten %).
EAEko Industria. 1994-2004**



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua


6. Industrian lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostua KPIaren igoera baino 3,1 puntu gutxiago hazi da.

Lanean dabilen pertsona bakoitzeko kostua eta KPIa (% Aldaketa). EAEko Industria. 1994-2004



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

Pertsonako lan-kostuen eta prezioen aldakuntza (% Aldaketa). EAEko Industria. 1994-2004



Iturria: Eustat-en oinarriturik landua

C) Ondorioak

Errentaren banaketak oso bilakaera desorekatua du industriako enpresetan. Enpresa-mozkinen pisua hazten delarik, lan-kostuak amildu egiten dira. Inflazioa lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak baino gehiago hazten da.

Ugazabak pozik egon daitezke, bai. Behin-behinekotasunaren hedapenaren eta ondoz ondo egindako lan-erreformen eraginez, enpresa-mozkinen marka guztiak hausteko aprobetxatzen ari dira abagune ekonomiko onuragarria, langileen bizi- eta lan-baldintza okerragoen lepotik.

Enpresetan marjina handia dago soldatak hobetzeko, lanaldia murrizteko eta behin-behinekotasunaren aurka borrokatzeko. Neurri horien kostu ekonomikoak ez du enpresen bideragarritasuna kolokan jartzen. Neurriok aplikatuz gero, mozkinak gaur egun baino gutxiago hazi edo txikiagoak lirateke, besterik ez.

Enpresetan, langileen interesak ahalik eta enpresa-mozkin handienak lortu nahiaren gaineratik jartzeko aldarrikapenaren aldeko indar-korrelazioa hobetzea da sindikatuen erronka.

2. EUSKO JAURLARITZAREN, FORU ALDUNDIEN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN SUPERABITA

Hego Euskal Herria Europar Batasuneko azkena da gizarte-gastuari eta presio fiskalari dagokienez. Gai horren inguruan, "Gizarte-ereduari buruzko eztabaida: gizarte-babesa eta zerga arloa Hego Euskal Herrian" izenburuko argitalpena kaleratu genuen 2006ko uztailean.

Hori gertatzen delarik, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Foru Aldundiek aurkezten dituzten kontuetan superabita da azpimarragarriena.

A) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien superabita

Eusko Jaurlaritzak 545 milioi euroko superabita zuela -BPGaren %0,95ekoa, alegia- itxi zuen 2005eko ekitaldia (horixe da dagoen azken informazioa dagokion ekitaldia). Hortaz, aurrekontu-defizitik onartu edo zerga-bilketaren gehikuntza galdatu beharrik gabe, joan den urtean, 545 milioi euro gehiago erabil zitezkeen gizarte-premiak estaltzeko.


2005ekoa ez zen salbuespen izan. Eusko Jaurlaritzak, 2000tik aurrera, ekitaldi guztiak itxi ditu superabitarekin. Sei urteotan metatutako superabita 1.917 milioi eurokoa da, hots, urtean batez beste 319,5 milioi eurokoa.

Eusko Jaurlaritzaren superabita. 2000-2005
(milioi eurotan)

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2000-2005	Batez besteko
490	289	328	54	211	545	1.917	319,5

Iturria: EAEko EGL

Eusko Jaurlaritzaren superabita. 2000-2005 (BPG %)



Iturria: EAEko EGLn eta Eustat-en oinarriturik landua

Egiturazko egoera honek erakusten duenez, Eusko Jaurlaritzak, gizarte-gabeziak estali beharrean, aurrekontu-politika neoliberalaren aldeko hautua egin du (finantza-merkatuetako arauak xedatzen dituztenek goresen duten legez).

EAEn, huts nabarmenak daude gizarte-ongizateari dagokionez (etxebizitza, 0 eta 3 urte bitartekoentzako hezkuntza-tartea, osasuna, gizarte-zerbitzuak, oinarritzko errenta, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak,...). Aurrekontu-politika zekenak erabili beharrean, gizarte-gasturako partidak handitzera baliabide publiko gehiago zuzentzea eskatzen du ELAk.

Eusko Jaurlaritzaren 2005eko superabitarekin, hau da, 545 milioi euroekin, zer egin daitekeen ikusteko, Jaurlaritzak 2006rako aurrekontuan jasotako partida batzuen zenbatekoa ikusi besterik ez dago:

- Haur eta Lehen Hezkuntza, 670,1 milioi euro (irakaskuntza pribatuarekiko hitzarmenak barne hartuta).
- Unibertsitateko irakaskuntza, 255,9 milioi euro.
- Haur Eskoletarako (0-2 urte) transferentziak, 13,6 milioi euro.
- Farmaziako gastu osoa, 564,5 milioi euro.
- Etxebizitzarako gastua, 177 milioi euro.
- Oinarritzko errenta, 139 milioi euro.

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, 30 milioi euro.
- Ingurumena, 38 milioi euro.

Bestalde, 2000tik 2005era bitarte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek batez beste urtean izandako superabita 96,8 milioi eurokoa da. Beraz, Foru Aldundiek ere erabiltzen dute gizarte-premiak erantzuteke uzteko eta aurrekontuan superabita izateko politika neoliberala.


Eusko Jaurlaritzaren superabita eta Foru Aldundiena gehituta, 2005ean 872 milioi eurokoa (BPGaren %1,52 bestekoa) izan zen guztizko superabita. 2000tik 2005era bitarte, urteko batez bestekoa 416,3 milioi eurokoa izan da.

**Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien superabita.
2000-2005 (milioi eurotan)**

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2000-2005	BATAZ BESTE
729	260	256	34	347	872	2.498	416,3

Iturria: EAEko EGL.

**Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien superabita.
2000-2005 (BPG %)**



Iturria: EAEko EGLn eta Eustat-en oinarriturik landua

B) Nafarroako gobernuaren superabita

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu ditu EAEn Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien eskuetan dauden gastu- eta sarrera-eskumenak.

2006ko ekitaldiaren itxierari buruzko aurreikuspenaren arabera, 120 milioi euroko superabita egongo da, BPGaren %0,7 bestekoa, alegia. 2005ean ere egon zen superabita, 73,6 milioi eurokoa, hain zuzen ere. 1995etik aurrera, Nafarroako Gobernuak 8 ekitaldi itxi ditu superabitarekin, eta 3, defizitarekin. Baina defizita izan duen urteetan ere, Europar Batasunean ezarrita dauden eta Alemaniak eta Frantziak, adibidez, gainditu egin dituzten mugetatik oso beherakoa izan da defizit hori.

Horren arabera, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politikak ere bat egiten du superabita izateko eta gizarte-premiei ez erantzuteko aukera neoliberalarekin.

**Nafarroako gobernuaren aurrekontu-emaitza.
1995-2006. (Milioi eurotan)**

1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006(*)
118,1	30,3	27,1	63,8	14,4	5,81	-66,6	31,72	-34,4	-84,1	73,6	120

(*) Aurreikuspena.

Iturria: Nafarroako Kontu Orokorrak

EAEn bezala, Nafarroan ere gizarte-gabezia garrantzitsuak daude, hala nola etxebizitza lortzeko zailtasun gero eta handiagoak, 0 eta 3 urte bitartekoentzako hezkuntza-tartean dauden toki urriak, menpeko pertsonen %86k estaldura publikorik ez izatea, osasun publikoko itxaronzerrenda luzeak eta kanpoan uzten diren prestazio garrantzitsuak (oftalmologia, aho-hortzetako osasuna, buruko osasuna,...), oinarrizko errentaren urritasuna, eta abar. Hori guztia kontu publikoak saneaturik daudela jazotzen da.

2006rako aurreikusi den 120 milioi euroko superabitaz gizarte-gastuaren arloan egin litekeenari buruzko ideia osatzeko, ikus ditzagun Nafarroako Gobernuak 2007rako aurreikusi duen aurrekontuko datu batzuk:

- 168,9 milioi euro, farmaziako prestazioetarako.
- 114,7 milioi euro, ospitalez kanpoko laguntzarako.
- 78,9 milioi euro, etxebizitzako gasturako.
- 66,4 milioi euro, unibertsitate eta ikerketarako.

-
- 52,4 milioi euro, gizarte-osasuneko laguntzarako (gizarte-zerbitzuak).
 - 42,2 milioi euro, ingurumenaren kudeaketarako.

C) Ondorioak

Hego Euskal Herria Europar Batasuneko azkena da gizarte-estaldurei dagokienez. Hala ere, euskal instituzioen kontuetan ageri den superabita nabarmena da. Europar Batasuneko defizit publikoa, aldiz, BPGaren %2,3koa izan zen 2005ean.

Neoliberalismoaren aldeko hautu horrek badu gizartearentzat onuragarriagoa eta ekonomikoki gauzagarria den ordezkoko beste bide bat: gizarte-gastua gehitzea, alegia, batez ere etxebizitza, gizarte-zerbitzu, osasun, hezkuntza, oinarrizko errenta, ingurumen, lurraldearen antolamendu eta antzeko gaietan.

Europar Batasuneko gizarte-gastuaren mailara heltzeko, ez da nahikoa superabita gizarte-gastura bideratzea. Zerga-iruzurrari aurre egingo dion eta azken urteetan PFEZan eta Sozietateen gaineko Zergan egin diren erreformak atzera botako dituen zerga-politika ere behar da. Erabakiok hartzea Hego Euskal Herriko instituzioen eskumena da, baina, dirudienez, ez daukate iruzur fiskalari aurre egiteko asmorik. Era berean, 2006an PFEZri eta Sozietateen gaineko Zergei buruz proposatutako erreformek sakondu egiten dute zerga-sistema gero eta atzerakorra egiteko eta soldatakoak ez diren errentak gutxiago zergapetzeko joera.


3. NAFARROAKO GOBERNUAK GIZARTE-ZERBITZUEI BURUZ AURKEZTUTAKO LEGE-PROIEKTUA

A) Menpekotasunaren egoera Nafarroan

Nafarroan, 6 urte baino gehiago dituzten 40.376 menpeko daude, biztanleriaren %7,9, alegia.

- Menpekotasun-tasa %8,5ekoa da emakumeen kasuan, eta %7,3koa gizonenean.
- Hona hemen menpekotasun-tasa, adin-taldeak kontuan hartuta:
 - + 70 eta 74 urte bitarte, %21,8koa (gizonen %14,4 eta emakumeen %28,2).
 - + 75 eta 79 urte bitarte, %28,3 (gizonen %23,8 eta emakumeen %31,7).
 - + 80 eta 84 urte bitarte, %41 (gizonen %35,7 eta emakumeen %44).
 - + 85 urte eta gehiagokoen kasuan, %72,9 (gizonen %71,4 eta emakumeen %73,7).

Nafarroako menpekotasun-tasa (%)



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa

Administrazioek ez diete erantzuten menpeko pertsona gehien beharrei. Gaur egun, gizarte-zerbitzuei buruzko legeriak ez die laguntza bermatzen behar duten pertsoneri. Ondorioz, hauxe da Nafarroako errealitatea:

- Etxeko laguntza-zerbitzua 3.675 laguni baino ez zaie ematen, hau da, baliatzeko ezintasuna duten pertsona guztien %9,1i.
- Etxeko laguntza hartzen dutenei 8,76 orduko zerbitzua ematen zaie hilean, batez beste (astean bi ordu).
- Eguneko zentroek 392 pertsonarentzako tokia dute, hots, menpeko biztanleriaren %0,1entzat.
- Egoitza publikoetan, 1.628 lagunentzako tokia dago, eta itunpekoetan, 895 lagunentzako. Hortaz, dauden 2.523 tokiek menpeko biztanleriaren %6,2ren beharra estaltzen dute.
- Laburbilduz: egoitzak, eguneko zentroak eta etxeko laguntza kontuan hartuta, biztanleriaren %84,6 geratzen da estaldurarik gabe. Pertsona horiek familiek zaintzen dituzte, bereziki emakumeek.

B) Gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektua

Nafarroako Gobernuak gizarte-zerbitzuei buruz onartu duen lege-proiektuak gizarte-zerbitzuen antolamendua ezartzen du, baina ez die herritarren premiei erantzuten; izan ere:

1. *Ez du benetako eskubiderik bermatzen, menpekotasunari dagokionez*

Hauxe da gizarte-zerbitzuen oraingo sistemaren hutsune nagusia: legeak ez diela menpeko pertsonari ezelako eskubiderik bermatzen. Nafarroako Gobernuak aurkeztutako legea onartuz gero, bere horretan geratuko da egoera aurrerantzean ere.

Proiektuaren 3. kapitulua Gizarte Zerbitzuen Zorroei buruzkoa da. Bertan adierazten denez, zorro horietan gizarte-zerbitzuen sistema publikoak emango dituen prestazioak zehazten dira. Bi zorro definitzen dira:

- Orokorra. Honek Nafarroako Foru Erkidego osoa hartzen du, eta Nafarroako Gobernuak erabakiko du.
- Tokikoa. Toki-erakundeek onartuko dute eta Nafarroako Gobernuak finkatutako prestazioak osatu egin ahalko ditu.

Argi dago gizarte-zerbitzuei buruzko legeak zehaztu egin behar dituela Gizarte Zerbitzuen Zorro Orokorrean sartu behar diren eskubideak. Baina lege-proiektuak ez du hori egin:

- 19. artikulua arabera, zorro hori Nafarroako Gobernuak erabakiko du Foru Dekretu bidez (hau da, eskubideak ez dira lege honetan arautzen).

- Hirugarren Xedapen Gehigarrian adierazten denez, "Nafarroako Gobernuak Lege hau indarrean hasten denetik gehienez urtebeteko epean onartuko du Gizarte Zerbitzuen Zorro orokorra". Hots, Nafarroako hurrengo Gobernuak erabaki beharko lituzke eskubide zehatzak.
- Lehenengo Xedapen Orokorrak gizarte-zerbitzuen zorro orokorrerako ezartzen duen gutxienezko edukiak ez dakar inolako aurrerapausorik oraingo egoeraren aldean, honako prestazio hauek besterik ez baititu kontuan hartzen: oinarrizko errenta eta gizarte-larrialdietarako prestazioak (dagoeneko badaudenak, eta gutxienezko kopururik aipatu gabe), Estatuko legeriak menpekotasunari buruzko ezartzen dituen prestazioak (hau da, Estatuan unea heltzen denean erabakiko direnak, gaur egun zehazteke baitaude) eta Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako derrigorrezkotzat sartuko dituenak (legean ez dira zehazten).

2. Ez du estaldura unibertsalik eskaintzen eta, gainera, bereizkeriaz jokatzeko du Europako Erkidegotik kanpoko etorkinekiko, horietako gehienek irispidea mugatuz

Proiektuan eskubiderik ez definitzea nahikoa da estaldura unibertsalik ez dela eskaintzen argudiatzeko.

Baina legearen testuak are argiago uzten du:

- Proiektuaren 5. artikulua, "Gizarte-zerbitzuen sistema artezten duten printzipioak" azaltzean, unibertsaltasuna aipatzen du printzipio horietako lehenengotzat. Honelaxe zehazten du printzipio hori: "botere publikoek berdintasunari, zuzentasunari eta bidezko birbanaketari jarraituz bermatu behar dute biztanle guztiek gizarte-zerbitzuak hartu ahal izateko duten eskubidea. Hala ere, zenbait zerbitzu jaso ahal izateko, betekizun eta baldintza espezifiko batzuk ezarri ahal izango dira".

Hau da, zerbitzuen unibertsaltasuna printzipioaren aipamen hutsean geratzen da, berez, menpeko pertsonak, zerbitzua hartu ahal izateko, lege-proiektuan zehazten ez diren baldintza gehigarri batzuk bete beharko dituzte eta.

Proiektuaren 4. artikulua gizarte-zerbitzuen honako hartzaile hauek aipatzen ditu:

- Nafarroan erroldaturik dauden Europar Batasuneko pertsonak.

- Erbesteratu, errefuxiatu eta herrigabeen izaera duten atzerri-tarrak.
- Aipatutako bi kolektibo horiek, “zenbait prestazio lortzeko ezartzen diren betekizun gehigarriak baztertu gabe”.
- Nafarroan, “gizarte-zerbitzuetako profesionalek larritasun, estutasun eta luzaezintasunaren arabera baloratuko duten premia pertsonal, familiar edo sozialeko egoeran” dauden pertsonak.

Horrela, kanpoan uzten ditu Europako Erkidegotik kanpoko pertsonak (horiei kolektibo zehatz batzuetakoak baldin badira edo larritasun, estutasun eta luzaezintasun zehaztugabearen arabera bakarrik egingo zaie arreta). Era berean, Europako Erkidegoko pertsonen eta erbesteratu, errefuxiatu zein herrigabeei irispidea mugatzeko aukera ere ezartzen da.

*3. Ez du estaldura publikorik bermatzen
eta zerbitzuak ordaindu beharra ezartzen du*

Zerbitzuen prestazioa bide pribatuaren bitartez egiteko aukera arautzen du testuak, eta ez du kalitateko gizarte-zerbitzu publikorik bermatzen.

Horrek Nafarroako Gobernuaren jardunbidea sendetsi besterik ez du egiten, gobernu horren politikak zerbitzuok sare pribatuaren bitartez eman daitezen sustatzen baitu. Pribatizatzeko eta arlo pribatua subentzionatzeko joera nabaria duen politika horrek isla argia du aurrekontuetan, batez ere gizarte- eta osasun-laguntzaren atalari dagokionez.

2006an, Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %80 erabiliko du hainbat erakunde eta zentrorik hitzarmenetera (adinekoentzako zentroak, baliatzeko ezintasuna duten pertsonentzako laguntzarakoak, buru-osasunekoak,...).

Pertsonen gizarte-zerbitzuetarako irispidea kentzeko moduetako bat irispide hori diru-kopuru bat ordaintzearen menpe jartzea da. Zerbitzuaren ordainketa edo ordainkidetza esaten zaio horri. Lege-proiektuan askotan aipatzen da ordainketa edo ordainkidetza hori. Adibidez, honako hau dio 49. artikulua (“erabiltzaileek finantzaketan parte hartzea”):

- “Gizarte Zerbitzuen Zorroetan ezarriko da gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zein prestaziotarako eskatu ahal izango den erabiltzaileen ordainkidetza”.

- "Erabiltzaileen partaidetzaren zenbatekoa zehazteko irispideak erregelamendu bidez xedatuko dira".
- "Ordainkideztaren zenbateko zehatzak betebeharrak ezarritako daukan zerbitzu bakoitzaren eskumena duen Administrazioak finkatuko ditu, Zorroan eta Foru Lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako irispideak errespetatuz, betiere, eta zenbatekoak Nafarroako Egunkari Ofizialean argitaratu beharko dira".

Alegia, ordainkideztaren bidea hautatzeaz gain, erabat arautu gabe eta kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak uanean uanean erabakitzen duenaren menpe gelditzen da.

4. Ez dakar aurrerapausorik pobreziaren aurkako borrokan

Oinarrizko errentari edo gizarte-larrialdietarako prestazioei buruzko aipamenetan ez da oraingo estalduren inolako hobekuntzarik ageri, biztanleriaren zati handi bat pobreziaren atariaren azpian utziz.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa oso urria da, pobreziaren atariaren azpikoa, zalantzarik gabe. Era horretan, bakarrik bizi den pertsona bati Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) %80 (383,28 €) bermatzen zaio 2006an. Bi kidek osatutako bizikidetzak unitateak hileko IPREMaren %95 (455,15 €) dauka bermaturik, eta zenbateko horri IPREMaren %10 erantzen zaio pertsona gehigarri bakoitzeko, 6 lagun edo gehiagoko unitatearentzat IPREMaren %130eko gehienezkoa (622,83 €) finkatuta. Diru-kopuru horiekin ezinezkoa da bizimodu duina, autonomoa eta kalitatekoa izaterik. Eta gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektuak ez du egoera hori aldarazten.

C) Ondorioak

- a) Nafarroako menpeko biztanleen %84,6k ez du laguntza publikorik. Etxeko laguntza hartzen dutenei, batez beste, hilean 8,76 orduko zerbitzua baino ez zaie ematen. Egoitza publikoetan eta itunpekoetan, menpeko biztanleen %6,2ren zako tokia besterik ez dago.
- b) Gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektuak ez die menpeko pertsonen beharrei erantzuten; izan ere:
 - 1) Ez dakarkie hobekuntzarik menpekotasun-egoeran dauden eskubideei. Legeak ez du benetako eskubiderik bermatzen.

-
- 2) Ez du estaldura unibertsalik eskaintzen. Gobernuak iragarritako unibertsaltasuna propaganda hutsa da. Dauden tokien edo aurrekontu-zuzkiduraren arabera bakarrik erantzungo zaie premiei.
 - 3) Europako Erkidegotik kanpoko etorkinekiko bereizkeriaz jokatzeko du, eta gizarte-zerbitzuetarako irispidea mugatu egiten die pertsona horiei.
 - 4) Ez da estaldura publikorik bermatzen; aitzitik, lege-proiektuak erabat irekitzen dizkio ateak Nafarroako Gobernuak garatzen duen pribatizazio- eta sare pribatuaren subentzio-politikari.
 - 5) Ordainkidetza hautatzen da, bide hori administrazio eskudun bakoitzak unean-unean erabakitzen duenaren menpe utziz.
 - 6) Oinarrizko errentan edo gizarte-larrialdietarako prestazioetan ez da gutxienezko bermerik ezartzen; beraz, oraingo egoera iraunarazteko (edo, baita, okerragotzeko) aukera ematen duelarik, prestazioek ez dute pobrezia atariaren azpitik ateratzeko balio.

4. ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK

Etxebizitza klase-gatazkaren ataletakoa da; izan ere:

- a) Etxebizitza lortzea ezinezkoa edo oso zaila da gero eta biztanle gehiagorentzat: EAEn, 145.000 lagun dira independizatu nahi dutenak baina baliabide ezagatik egin ezin dutenak; etxebizitza-premia gero eta handiagoa da,... Arazoa gero eta larriagoa da, eta, bereziki, egoera txarrean bizi diren kolektiboak jotzen ditu (gazteak, etorkinak, emakumeak,...). Kolektiboa lan-merkatuan behin-behinekotasuna, soldata urriak eta abar nozitzen dituzten berberak dira, hain zuzen ere.
- b) Bitartean, batzuek mozkin itzelak poltsikoratzen dituzte etxebizitzaren zioz (eraikuntza-enpresek, birkalifikatutako lursailak dauzkaten pertsonak eta erakundeek, birkalifikazioak egiten dituztenek,...).

Hortaz, biztanle gehienak gero eta okerrago bizi direlarik, administrazioan eragin dezaketen pribilegiatu gutxi batzuk gero eta abetsagoak dira.

Egoera horren aurrean, hauxe egiten dute Hego Euskal Herriko administrazioek:

- Espekulazioa erraztu egiten dute.
- Gizarte-premiak estaldurarik gabe uzten dituzte (gero eta behar gehiago uzten dira erantzuteke, eta etxebizitzarako irispidea duten pertsonak bizitza osorako hipotekatzen dira).

Politika neoliberalen testuinguru horren barruan kokatu behar dira Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Planak: etxebizitzako aurrekontuak ez handitzeaz gain, PFEZan planteatzen diren erreformek nabarmenki murriztuko dituzte diru-sarrerak, PFEZko gehienezko tasak urritzearen ondorioz, besteak beste, eta horrek, halaber, errenta handienak dauzkaten kolektiboek ekarriko die onura. EAEn kasuan, etxebizitza erosteagatiko zerga-arinketa areagotzea ere planteatzen da (baliabide gehien daukatenentzat onuragarria), baina ez da etxebizitzako gizarte-gastua handitzen (hori errenta txikiak dituztenentzat izango litzateke mesedegarria). Hortaz, etxebizitzako gastu publikoaren eta etxebizitzagatiko zerga-arinketen arteko jauzia (hirukoitza gaur egun) hazi egingo da.

Finean, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak kolektibo ahaltsuenentzat (errenta handiak, enpresak, kapitala,...) onuraga-

ria den eta milaka eta milaka lagun etxebizitza lortzeko aukerarik gabe uzten dituen politika neoliberalaren parte dira. Gobernuon politikek iraunarazi egiten dute oraingo egoera.

Aurreko planek porrot egin dute (egoera askoz txarragoa da orain, eta helburu nagusiak ez dira lortu), eta oraingo planak aurrekoen ildo beretik doaz.

Errotiko aldaketa aldarrikatzen dugu etxebizitza-politika publikoetan, aurrekontu-zuzkiduraren gehikuntza eragin eta biztanle behartsuenen onura bila dezaten.

A) Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana

2006-2009 Etxebizitza Plana urrian onartu du Eusko Jaurlaritzak, ia-ia bere lehen urtea bukatzeaz; berandu datorren plana da beraz. Zehaztasuna falta du planak zentzu batzuetan, eta xehetasuna beste batzuetan. Hala ere, planaren ezaugarriarik esanguratsuena, zalan-tzarik gabe, diskurtso eta jarduketa arteko kontraesana da. Honela:

1. Ez die etxebizitzako behar sozialei erantzuten

Egun 87.715 etxebizitzaren beharrez dago Euskal Autonomi Erkidegoan, azken urteetan handitu dena. Gainera, planak dirauen urteetan zehar ehundaka mila pertsonak independizatu nahi dute.

Hala ere, Etxebizitza Planak 30.000 etxebizitza beharrez soilik estaliko ditu 4 urtetan zehar (batez-beste 7.500 urtean), oso eskasa dena etxebizitza beharrez erantzuteko.

2. Oso aurrekontu urria du

Planak ez du aldaketarik azaltzen etxebizitza gastu publikoan. Zehazki, Planak dirauen urteetan zehar BPGaren %0,3 ingurukoa izaten jarraituko duela gastu honek ikusten da. Era honetara, etxebizitza duin baterako eskubidea bermatu ezinik jarraituko du etxebizitza gastu publikoak.

Etxebizitza Sailaren aurrekontu zuzkidura(miloi euro)

2006	2007	2008	2009	2006-2009
180	187	193	200	760

Iturria: 2006-2009 Etxebizitza Plana

3. *Eraikuntzari lehentasuna ematen dio, etxebizitza hutsak merkaturatzea alde batera utziz*

Planak hiri berriaren ingurumen garapen eta garapen sozialaren alde egiten duela dio, eta baita eraikitako hiriari balioa ematearen alde ere. Hala ere, erantzungo dion eskariaren 27.000 jarduketa (%80 baino gehiago) etxebizitza berrien eraikuntzari dagokio, etxebizitza hutsak merkaturatzea bezalako neurri desiragarriagoak, oso pisu baxuarekin geratuz.

Zehazki, 5.000 maizterrek hutsik dagoen etxebizitza batera sarrera izatearen helburua finkatzen du. Honek murrizketa bat suposatzen du aurreko planak merkaturatu nahi zituen 5.000 etxebizitzekiko, zeren eta:

- Jadanik merkaturatuak izan diren 2.000 etxebizitza gutxiago planteatzen dira.
- Aurreko planeko 5.000 etxebizitzek 5.000 maizter baino gehiagori erantzun diezaiokete.

Planak merkaturatu nahi dituen etxebizitzaren kopurua oso urria da, INEk 89.000tan zenbatzen baititu hutsik dauden etxebizitzak, eta Eusko Jaurlaritzak 26.691tan.

4. *Salmentaren aldeko apustua egiten du, alojeraren kaltetan*

Planak eraikitako etxebizitza babestuen %31,4 alogurara zuzentzea planteatzen du, eta beraz, gehiena (%68,5) jabetzara zuzentzen da.

Plan honetan jabetzari ematen zaion nagusitasunaren beste adierazle bat, aurreko planarekin alderatuz, alogurara zuzenduriko etxebizitzaren eraikuntza %16 bakarrik gehitzen dela da, jabetzarako etxebizitzaren eraikuntza %108 gehitzen den bitartean.

Era honetara, eta diskurtso ofiziala babesturiko etxebizitzetan alogura indartu beharraren aldekoa izan arren, aloguraren portzentzia aurreko plan bietan baino baxuagoa da (%45,1 2002-2005 Etxebizitza Planean, eta %48,5 2000-2003 Planean).

Gainera, alogurara zuzenduriko 8.500 etxebizitzetatik, %35,3 bakarrik doa mugagabeko alokairura, beste %64,7 bitarteko alogurara doalarik.

**Etxebizitza eraikuntzarako helburuak.
2000-2003, 2002-2005, 2006-2009 Etxebizitza planak.**

	2000-2003	2002-2005	2006-2009
ALOGERA	6.800	7.300	8.500
JABETZA	7.200	8.900	18.500
GUZTIRA	14.000	16.200	27.000
ALOGERA %	%48,6	%45,1	%31,5
JABETZA %	%51,4	%54,9	%68,5

Iturria: 2006-2009 Etxebizitza Plana

Euskal Herrian jabetzaren aldeko kultura dagoela sarri entzuten da, baina honoko hau, politika publikoek honetan duten eraginaren beste adibide bat baino ez da.

Ondorioak

2006-2009 Etxebizitza Planean planteaturiko helburuak, etxebizitza arazoa konpondu, eta etxebizitza duin batera eskubidea bermatzeko guztiz ez-nahikoak direla uste du ELAk. Honek lotura zuzena du etxebizitza gastu publikora zuzentzen den zuzkidura urriarekin.

Planak planteatzen dituen helburu teoriko eta benetan gauzatzeko den zifren artean kontraesan handi dagoela uste dugu. Honela, adibidez, diskurtso ofiziala alogura eta ingurumen jasangarritasunaren aldekoa den bitartean, benetako jarduketak etxebizitza berriak eraikitzean oinarritzen dira, batez ere jabetzara zuzentzeko.

B) Nafarroako gobernuaren 2005-2008 etxebizitza plana

1. Gardentasunik eza

2005-2008 Etxebizitza Planari buruz azpimarratu behar den lehenengo gauza plana ezagutarazi ez izana da: Nafarroako 2005-2016 Etxebizitza eta Lurzoru Planaren barruan txertatuta dagoen 2005-2008 Etxebizitza Planaren berri erantzun parlamentario baten bidez jakin behar izan da.

Aurreko Plana (2001-2004) zabal-zabala zen eta azalpen asko jasotzen zituen, eta bere memorian, luzea hori ere, Nafarroako etxebizitza arloaren alderdi garrantzitsuei buruzko argibide ugari ematen ziren: etxebizitzaren beharra eta eskaria, eskaintza, bi aldagai horien testuinguruaren gaineko ondorioztapenak, eta abar.

Orain indarrean dagoen Etxebizitza Plana “plan” arina da, eta ez du Nafarroako etxebizitza arloaren egoerari buruzko azterlanik barne hartzen. Horrela, galdu egin da Nafarroan etxebizitza lortzearen zailtasuna diagnostikatzeko aukera, gai horri buruz dagoen azken informazio publikoa 2000koa baita: onartezina, gaia hain garrantzitsua izaki.

Horrez gain, Etxebizitza Planean ez da zenbateko diru-zuzkidura daukan zehazten, nahiz eta hori berebiziko datua izan.

2. Planaren edukiak

2.1 Etxebizitza babestu gehiago, baino garestiagoak

Oraingo Etxebizitza Planari buruzko balorazioa egiten hasi aurretik, aipatu behar da 2001-2004 Etxebizitza Planak bertan aurreikusitako etxebizitza babestuen %44 eraikitzea besterik ez zuela lortu. Alderdi hori oso garrantzitsua da, etxebizitzaren erakuntza Planeko neurri pisutsuena baitzen, gainerako neurriak bigarren mailakoak zirelarik.

2001-2004 Etxebizitza plana

	Helburua	Eraikitakoak	Konplimendua
BOE Berezia	3.750	978	%26
BOE Orokorra	4.500	3.012	%67
PTE(*)	1.750	436	%25
Guztira	10.000	4.426	%44

(*)PTE: Prezio Tasatuko Etxebizitzak
Iturria: 2001-2004 Etxebizitza Plana

2005-2008 Etxebizitza Planean aurreikusitakoaren arabera, 13.000 etxebizitza eraikiko dira 4 urteotan, hau da, aurreko Etxebizitza Planean zehaztutakoak baino 3.000 gehiago. Asmo handiko helburua da hori, aurreko planak ataza horretan izan zuen porrota kontuan hartuta.

Aurreikusitako etxebizitza babestuen kopurua. 2005-2008 Etxebizitza plana

2005	2006	2007	2008	TOTAL
3.250	3.250	3.250	3.250	13.000

Iturria: Nafarroako 2005-2016 Etxebizitza eta Lurzoru Plana

Oraingo Etxebizitza Plana ere ez da aurreikusitako emaitzak lortzen ari, bere lehenengo urtealdian, proiektatutako 3.250 etxebizitzetatik 2.211 baino ez baitira eraiki. Hortaz, konplimendu-maila %68koa izan da.

Eraikitako etxebizitza babestuen kopurua. 2005

BOE orokorra	BOE berezia	PTE	Guztira	Konplimendua
1.446	409	356	2.211	%68

Iturria: Nafarroako Gobernua

Aurreko planaren aldean, oraingoan eraikitako etxebizitza babestuen kopuru osoa handitu bada ere, etxebizitza babestu merkeen kopurua urritu egin da, eta etxebizitza garestienena, berriz, gehitu. Zehazki:

- Erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak, hots, gehienezko prezio merkeenak dituztenak, 2.250 gutxiago izango dira, aurreko planean aurreikusitako 3.750 etxebizitzetatik oraingo planeko 1.500etara igarota. Era berean, horrelako etxebizitzak etxebizitza babestu guztien %11,5 besterik ez dira izango, aurreko planean %37,5 zirelarik.
- Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak 500 gehiago izango dira, baina guztizkoan dagokien portzentajea urritu egingo da: aurreko planeko %45etik oraingo %38,5era, hain zuzen ere.
- Prezio tasatuko etxebizitzak, hau da, gehienezko prezio garestiena dutenak, 1.750 izatetik 6.500 izatera igaroko dira; alegia, 4.750 gehiago izango dira oraingoan. Horrela, 2001-2004 Planean etxebizitza babestu guztien %17,5 ziren horiek %50 izango dira oraingo planean.

Aurreikusitako etxebizitza babestuak, motaren arabera. 2005-2008 Etxebizitza plana

	2001-2004	2005-2008
BOE Berezia	3.750	1.500
BOE Orokorra	4.500	5.000
PTE	1.750	6.500
Guztira	10.000	13.000

Nafarroako 2005-2016 Etxebizitza eta Lurzoru Plana

2.2 Alokairuaren pisua urritu egiten da

2005-2008 Etxebizitza Planaren 5. jarduera-ildoak "alokatzeko etxebizitza babestuen sustapena bultzatzea" bada ere, mota horretako etxebizitzak 2.100 izango dira, hots, guztizkoaren %16,2 baino ez. Aurreko planean horrelako etxebizitzak %20 zirela kontuan hartuta, argi dago Nafarroako Gobernuak alokatzeko etxebizitza babestuen alde egiten duen apustua txikiagoa dela.

Babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan eskaini beharko lirateke, batez ere Nafarroan, jabetzan esleitutako etxebizitzak, 30 urte iraganda, titularitate pribatukoak bihurtzen baitira. Alokairuaren bidez, etxebizitza publikoak beti publiko izatea ziurtatu ez ezik, horrelako etxebizitzak beti premia handiena duten pertsonen eskuetan gotea bermatzen da.

Baina Nafarroako Gobernuaren apustua oso bestelakoa da, babes ofizialeko 10 etxebizitzatik 8 baino gehiago jabetzan esleitzen dira eta.

Aurreikusitako etxebizitza babestuak, aukeraren arabera. 2005-2008 Etxebizitza plana

Jabetza	10.900	%83,8
Alokairua	2.100	%16,2
Guztira	13.000	%100,0

Nafarroako 2005-2016 Etxebizitza eta Lurzoru Plana

2.3 Hutsik dauden etxebizitza gutxi aterako dira merkatura

2001eko Zentsuaren arabera, Nafarroan 35.000 etxebizitza daude hutsik. 1940 baino lehenagoko etxebizitzak (9.854) kanpoan uzten baditugu –egoera txarrean daudelakoan– eta salmenta-prozesuan daudenak (4.693) kenduta, 20.000 etxebizitza dira, Planaren estimazioen arabera, merkatura atera litezkeenak.

Baina horietatik 800 bakarrik, %4, merkaturatzeko asmoa dago. Gaur egun behar diren etxebizitzaren kopuruari erreparatuta eta dagoeneko eraikita dauden etxebizitzak erabiltzea arazoa konpontzeko modurik eraginkorrena eta ekologikoa dela kontuan hartuta, kopuru hori irragarria da.

5. MERKATALGUNE HANDIEI BURUZKO EUSKO JAURLARITZAREN DEKRETUA

Eusko Jaurlaritzaren diskurtso ofizialak denda txikien alde jardun beharra aipatu eta establezimendu komertzial handien hedapena geraraziko duela dioen arren, haren benetako jokabideak kate handiei egiten die mesede oraindik ere, betiko saltoki txikien kalte-tan.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren azken dekretu-proiektuak, "Establezimendu komertzial handien ezarpen, aldaketa eta handitzeari buruzko dekretua aldatzeko deakretua" deitu dionak, lehengo norabide berean jarraitzen du.

Honako arrazoi hauengatik deritzogu arbuiaigarri dekretuari:

1. Oraingo legeriak baino establezimendu komertzial handien azalera gehiago egotea baimentzen du, eta hainbat bide ematen ditu horretarako:

- a) Handitu egiten ditu establezimendu komertzial handien gehienezko azalera-koefizienteak, hau da, biztanleko, establezimendu komertzial handitarako metro karratu gehiago erabiltzeko baimena ematen du.
- b) Handitzea edo ezarpena beste estatu batzuekiko mugako udalerrietan egiten bada, salmentarako gehienezko azalera udalerriko zuzenbidezko biztanleria 2,75ekin biderkatzearen emaitza izango da (orain arte, udalerrri horiei ez zitzaien bera-riazko trataerarik ematen).
- c) Gehienezko azalera guztia erabilia daukaten eskualdeei dagokienez, gehikuntza aurreikusten du dekretuak, etorki-zunari begira. Era horretan:
 - Eskualdean eraikitzen edo birgaitzen diren 450 etxebizitzako, biztanleko 0,100 m²arteko establezimendu komertzial handien baimena ezartzen du, elikadura eta balio anitzeko produktuen kasurako.
 - Konpetentzian distortsioak nabaritzean, 2.500m² baino baxuagoko salmenta azalera berri bat proposatu ahal izango da.

2. Establezimenduak handitzeko lizentziak honako kasu haue-tan bakarrik eskatu beharra xedatzen du:

- a) Jendearentzako salmenta-azalerari 500 metro karratu edo gehiago gehitu nahi bazaizkio.

b) Handitzearen ondorioz, salmentarako azalera hasierakoa baino %20 handiagoa izatea aurreikusten bada.

Hortik beherako gehikuntzak egiteko, jakinarazi beste betebeharririk ez dago.

Bestalde, dekretuaren arabera, handitzea “salmentarako azalera” ukitzen duena baino ez da; beraz, handitzeko lizentzia eskatu beharretik kanpo geratzen dira azalera gehigarri ugari, hala nola igarotzeko eskaileretarakoak, zerbitzuko igogailuetarakoak, ebaquazio-eremuak, edo denbora libre edo laguntza teknikoari dagozkionak. Azalera horiek handitzeko, jakinarazi besterik ez da egin behar, gaur egun beste azalera batzuekin gertatzen den bezala (produktuen lanketa, konponketa, ekoizpen eta biltegiatzerako azalera, aisiarakoak, jatetxeak eta eremu komertzialetara heltzeko pasilloak).

Horrela, establezimendu komertzial handietan jendearentzako gehienezko salmenta-azalera gainditzea ahalbidetzen da.

3. “Sektorean jazotako egiturazko aldaketak” aipatzen dira dekretu berria egiteko arrazoitzat, “dekretua berregokitzea gomen datzen baitute” (baina aldaketak ez dira azaltzen), bai eta “Establezimendu Komertzial Handien Batzordeko kideen ekarpenak” ere. Pentsa dezakegu “ekarpen” horiek erabakigarriak izan direla establezimendu komertzial handien sektorearen premietara egokitutako dekretu-proiektu horretan.

Ondorioak

Aztertu dugun dekretuak establezimendu komertzial handien presentzia handiagotzeko baimena ematen du, eta zabalik uzten du establezimenduok jendearentzako salmentarako gehienezko azalera-koefizienteak gainditzeko aukera. Betiko denda txikien kontra jotzen du horrek, alegia, dagoeneko, establezimendu komertzial handiak azken urteetan hainbeste ugartu izanaren kaltea nozitu duten berberen kontra. Dagokion udalerrri edo eskualdean, lizentzia eskatzearekin batera, eragin sozioekonomikoa azaltzen duen ikerketa aurkeztu behar izateko baldintza kentzea honen beste adibide bat da.

Ekintza horiek euskal instituzioek orokorrean darabilten politika neoliberalaren beste erakusgarri bat dira, korporazio handien interesen alde beti. Horrela, oligopolioak sustatu ez ezik, gizarte-eredu jakin bat bultzatzen da, kontsumo-gizartearena, hain zuzen ere.